

Mozkorraldi itsua

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Euskal Herriko eremu batean behintzat, luze dirau azken bi hauteskunde kanpainetako mozkorraldiaren bestondoak. Besteak beste, Espainiako Gorteetarako hauteskundeon ondoren, presidentetzarako boto gehien bildu dituen hautagaiak ez duelako gehiengorik, eta gobernu osatzeko bazkide printzipala izan daitekeenarekin gobernu hori nola bataiatu hausnartzen ari den itxurak egiten dituelako.

Udal eta foru hauteskundeek, berriz, matematikak egiteko eta ia aritmetika

bera ere behartzeko tentaldira eraman gaituzte hainbat herritan. Egunotan, zenbat aldiz ez ote ditugu entzun Iruñeko, Lizarrako, Durangoko, Andoaingo edo Pasaiaiko alkatetza ahotan hartu duten politikarien hitzak.

Etengabeko kanpainan bizi garela askotan esaten dugu, eta hauteskunde ondoren ere luzatzen ari den antzerkiak aspertu egiten gaitu. Aldi batetik bestera, teoriarik, lau urteko tartea egoten da. Baina ikuskizunaren eta zirkua-ren gizartearen, atsedetik ez, ez kargu hartzeen aurretik ezta ondoren ere.

Hain justu, gaur osatuko dira udal gehienetako udalbatzak eta egingo dira alkatea hautatzeko bozketak. Albiste izango da, han edo hemen, lortutako boto kopuruari esker izan ordezkari, bidelaguna konbentzitzeko gaitasunari esker iritsi dela norbait alkatetzara. Edo arerioetako bat izeratzeagatik, hainbeste gorroto ez duen arerioarekin bat egin duela auskalo nork. Eta gero herriaren ordezkari direla esango digute. Eta hauteskunde aldirako mediatikoki aktibatutako herriak belarriak eta begiak estaliko ditu hurrengo hauteskundeetara arte. •

Gutunak

Joxean Agirre

Gutuna da Internet aurreko belaunaldikook alde edo moldez noizbait landu dugun literatura genero bakarra. Autobiografia-ren adar xume, aitorpen intimo nahiz bestelakoak egiteko leku eroso, gutunak igorlearen lekuan berehala jartzen gaitu.

Egunotan irakurri ditut Garazi Goiak eta Goizalde Landabasok elkarri idatzi eta “1.362 km euri” liburuan bildutakoak (izenburua, egia esan, ez zait oso inspiratua iruditu). Etengabe lanean eta bidaiazten ari diren emakumeak dira, presaka bizi direnak. Miresten dituzten emakumeez mintzo dira batez ere, baita beren lanaz, amatasunaz, irakurtzen dituzten liburuez eta beren ametsaz ere. Gutunak ederrak dira. Gehien harritu nauena beren izaeraren irmotasuna

izan da, beren pentsaeraren gotortasuna, beren burutazio, gogoeta eta pentsamenduetan zalantzak zeinen leku gutxi duen ikusteak, alegia.

Behinola Jon Sarasuak eta Andoni Egañak egindako “Zozoak beleari” paregabea ekarri didate gogora edo, atzerago joanda, Andima Ibinagabeitia eta Jon Miranderaren arteko gutun truke harrigarri hura. Azken hauek, nolabait esateko, benetakoagoak dira, intimoagoak. Bertsolarienak literarioagoak izan zirela esango nuke eta idazle emakumeonak, borrokariagoak.

Etiket kanpo ere bada adibide gogoangarririk. Bada Flauberten edo Kafkaren gutunak beren obra “serioak” bezain interesgarriak direla uste duen irakurle-rik. Lehen idazle guztiek gordetzen zi-

tuzten gisako gutun trukeak. Nik ez ditut irakurri, baina famatuak dira Virginia Woolfek eta Vita Sacville-Westenek trukatu zituztenak.

Oraingo idazleek argitaratzeko asmoarekin idazten dituzte. Interesgarria da, beste adibide bat aipatzearen, “Enemigos públicos” (“Ennemis publics”), Bernard-Henry Levy eta Michel Houellebecq-en arteko posta elektronikoaren trukea biltzen duen liburua.

Generoak askorako ematen du. Hauteskunde emaitzen digestioa egin ezinik gabiltzan honetan pozik irakurriko nuke Atxagaren eta Larrionen arteko gutun truke bat edo Otegi eta Ibarretxeren arteko bat. Aurreiritziak izango ditut, baina ez nuke erosiko Iñigo Urkullu eta Idoia Mendiaren artekorik. •